

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

36/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua integratuta egongo den Arabar Errioxa Jatorri Deituraren sorrera babesteko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2020ko ekainaren 29an egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

36/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua integratuta egongo den Arabar Errioxa Jatorri Deituraren sorrera babesteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabar Errioxa Jatorri Deitura sortzea babesten dute, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua integratua egongo dena, merkatuak eskatzen duen bereizketa eta segmentazioa sustatu ahal izateko, kalitatea, jasangarritasuna eta eskualdearen posizionamendua oinarri hartuta, baita ekoizpen- eta merkaturatze-eredu desberdinen arteko elkarbizitza aintzat hartuta ere.

2. Arabako Batzar Nagusiek errespetatu egiten dituzte banakoen eta taldeen enpresa-erabakietatik jaiotako ekimenak, ekimen horien xedea oso lehiakorra eta zorrotza den mundu mailako merkatu batean tokia egitea denean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 29a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA